



Inflazioa

Azken hogeita hamar urteetan ezagutu ez den prezioen igoera orokor garaiena ezagutu dugu azken hilabetetan Euskal Herrian eta, oro har, Mendebaldeko herrialde guztietan. Aspaldiko partez, inflazio tasa apalak atzean geratu dira eta prezioek gorantzako joera indartsua hartu dute. Esaterako, iazko apiriletik aurtengora Kontsumorako Prezio Indizea %8,7 igo da Nafarroan eta %7,8 Euskadiko Autonomia Erkidegoan, marka guztiak hautsita.

Inflazioaren diagnostikoa egitean ohiko ikuspegi liberalak azpimarra ipintzen du pandemiari aurre egiteko Mendebaldeko gobernu gehienek eta baita Europako Banku Zentralak ere erabili duten diru politika hedatzailean. Ikuspegi horren arabera, esku artean dagoen diru kopurua hedatzeak ondasun eta zerbitzuen prezioak igotzea dakar. Eta horregatik, prezioen igoera horri aurre egiteko diru kopurua mugatu eta interes tasak igotzea beharrezkoa litzateke. Beraz, azkenaldiko interes tasa apalen aroa amaitzear dagoela aurreikus daiteke, Ameriketako Estatu Batuetan joera aldaketa eman baita eta Europako Bata-sunean epe hurbilean gauzatzea aurreikusita dago.

Nolanahi ere, 2021eko eta 2022ko prezio igoeren sorburua eskaintza da. Hala nola, munduko petrolioaren prezioak lehertu egin ziren iazko udaberrian. Bestalde, energiaren arloko beste lehengaien igoera trinkoak ematen hasi

Interes tipoak emendatzea edo soldaten igoerak mugatzea ez dira neurri eraginkorrak egungo prezioen hazkundeari muga ipintzeko

ziren iazko udaz geroztik. Eta pandemiaren geldialdiaren ondorengo eztanda ekonomikoarekin, erdieroaleen eta industriagintzarako ezinbestekoak diren bestelako bitarteko ondasunen balio kateek gainezka egin zuten. Ondorioz, input horien prezioak ere nabarmen igo dira. Urte honetan, Ukrainaren inbasioak eta Errusiaren aurka hartutako neurri ekonomikoek are gehiago astindu dituzte elikagaien eta energiaren prezioak. Faktore zehatz horiei gehitu behar zaie enpresa handiek arrazoirik gabe beren etekin tarte handitu izana. Horiek dira egungo inflazioaren arrazoi nagusiak.

Beraz, ez da diru politika hedatzailea ezta soldaten jokabidea behatu behar prezioen igoera orokorrak ulertzeko. Horregatik, interes tipoak emendatzea edo soldaten igoerak mugatzea, sozial-



MIKEL ZUBANO
EKONOMIALARIA

ki bidegabeak izateaz harago, ez dira neurri eraginkorrak egungo prezioen hazkundeari muga ipintzeko. Banku Zentralak interes tasa ofizialak igotzen baditu inbertsioa eta maileguzko kredituak garestituko ditu eta, beraz, salmentak, jarduera ekonomikoa eta enplegua moteldu. Horrek atzeraldi berria eragingo luke, eta prezioen gorantzko joera ez litzateke etengo.

Inflazioari aurre egiteko beste estrategia bat soldatak mugatzea da. Aurre-ratu dudanez, neurri hori ere atzerakoa ez ezik hutsala izango litzateke prezioen hazkundera menderatzeko. Batetik, soldatak ez daude egungo prezioen hazkunde orokorraren atzean. Eurostaten arabera Espainiako Estatuan azken 21 urteetan soldatek errenta *nazionalean* duten pisuak ehuneko 3.5 puntu egin ditu atzera, etekinek eta kapital errentek irabazi dutena, alegia. Eta 2021ean, prezioek igotzeko joera hartu zutenean, okerragoa izan zen, soldatapekoen erosahalmena %2,2 jaitsi baitzen. Bestalde, prezio-soldata arteko aldearen gorantzko joera ez dator bat egungo egoerarekin. Garaiotan enpresa handien eta oligopolioen gehiegizko etekinak eta lan bez besteko kostuak –energiarena kasu- dira prezioak akuilatzen dabiltzanak.

Neurri bidegabe eta antzu horien ordez inflazioaren aurkako borrorak eskaintzan eta egiturazko oinarrietan eragin beharko luke, justizia sozial eta ekologikoaren esparrua zabalduta. ●